## (I) ELHEKETA: ASTE HUNTAKO SOLAS GAIA

1. Idazlaria zertaz mintzo da erranez «Biziki ontsa hoik guziak»?
2. Zertako batzutan eske-oihua galtzen da?
3. Zer estakuru eman zuen guarden buruzagiak ezkeman ez igortzeko eskoririk?

## (II) UHALDEA 13

Biziki ontsa hoik guziak. Jende xeheak etzuen bertzerik gogoan; haren manuz bezala zabilan ere mera. Mailez mail igortzen zuen galdea, hel-bururaino, abilki: aitzindari ttipiak ohore gose dituzu alabainan, eta handiak ardura heien erranari beha egoki. Hola jokatuz, bidean galtzen zautzu ba batzutan, zure eske-oihua; bainan ez da gutiago egia hainitzetan adiarazten duzula kaskotik kaskora gain gaineraino, eta noizbait, ardiesten ere ba zerbait, guti bada guti. Horren gatik ez bailitake bizkitartean uste ukan behar Aldudako mera lo zagola epe berean; ez eta hemengo bertze buruzagiak!

Urepelen bezala jende xehea inziraka hasia baitzen Aldudan ere, galdegin zuten guarden aitzindarier: ea ardiets zitakenez gauzen Espainiatik dretxorik gabe sartze hori. Hok ezetz: behar zela hortako *lege* bat.

Hainbertzenarekin hemen gertatu guarden inspekturra; hunek ere hitz bera: ministroek berek ez zezaketela holakorik onets; behar zutela lehenik parte eman deputatu eta zenaturrer, eta hauien baimena ardietsi; galdaturik ere, nekez ardiets zezaketela aldi huntan, Bankatik mando bide bat egin gogo zaukutelakotz laster, bizigailu guziak ukan ginitzan Espainiatik bezain merke; etzuela geroztik balio gobernamenduko gizoner eskez jar ginten, eta holako.

## (III) ADITZ IKASKUNTZA

31- zabilan ere mera. 32- galtzen zautzu
33- ez bailitake 34- lo zagola
35- ea ardiets zitakenez 36- ez zezaketela
37- zaukutelakotz.

### 31- IBILI Indicatif.

| Présent | | Imparfait |
|---|---|---|
| Ni nabila | = je marche | N. nindabilan = je marchais |
| Hi habila | = tu marches | Hi hindabilan = tu marchais |
| Zu zabiltza | = vous marchez | Z. zinabiltzan = vs marchiez |
| Hura dabila | = il marche | H. zabilan = il marchait |
| Gu gabiltza | = ns marchons | G. ginabiltzan = ns marchions |
| Zuek zabiltzate | = vs marchez | Z. zinabiltzaten = vs marchiez |
| Hek dabiltza | = ils marchent | H. zabiltzan = ils marchaient |

### 33- IZAN. Conditionnel Présent

| | |
|---|---|
| Ni izan ninteke | = je serais |
| Hi -"- hinteke | = tu serais |
| Zu -"- zintezke | = vous seriez |
| H. -"- liteke = litake | = il serait |
| Gu -"- gintezke | = nous serions |
| Zuek -"- zintezkete | = vous seriez |
| Hek -"- litezke = litazke | = ils seraient |

### 32- IZAN. Régime indirect, Indicatif Présent, Singulier

-(Hura) da = Il est-

| | | |
|---|---|---|
| (Hura hari) zait = zaut | (à moi) | = il m'est |
| " zaizu = zautzu | (à vous) | = il vous est |
| " zaio = zako | (à lui) | = il lui est |
| " zaigu = zauku | (à nous) | = il nous est |
| " zaizue = zauzue | (à vous) | = il vous est |
| " zaie = zakote | (à eux) | = il leur est |

### 35- IZAN. Potentiel Imparfait.

| | |
|---|---|
| Ni izan ninteken | = je pouvais être |
| Hi -"- hinteken | = tu pouvais être |
| Zu -"- zintezken | = vous pouviez être |
| Hura -"- ziteken (zitaken) | = il pouvait être |
| Gu -"- gintezken | = nous pouvions être |
| Zuek -"- zintezketen | = vous pouviez être |
| Hek -"- zitezken | = ils pouvaient être |

### 34- EGON Indicatif

| Présent | | Imparfait | |
|---|---|---|---|
| Ni nago | = je reste | Ni nindagon | = je restais |
| Hi hago | = tu restes | Hi hindagon | = tu restais |
| Zu zaude | = vous restez | Zu zinauden | = vous restiez |
| Hura dago | = il reste | Hura zagon | = il restait |
| Gu gaude | = nous restons | Gu ginauden | = nous restions |
| Zuek zaudezte | = vous restez | Zuek zinaudezten | = vous restiez |
| Hek daude | ils restent | Hek zauden | = ils restaient |